

Euskal Kultura II : Hirugarren eta laugarren gaien iruzkina

Hitz gutxi izango dira “etnia” hitzak bezainbeste eztabaida eta gaizkiulertu sortu dituztenak. Batzuk “arraza” kontzeptuaren ordeko arriskutsu gisa ikusten dute, gizakion sailkapen biologizista atzerakoi baten produktu gisa. Hitz bat behar da, ordea, gizadiari berezko zaion aniztasun kulturalak eta baldintza materialen ezberdintasunak sortzen dituzten taldeei esateko, eta zentzu horretan da etnizitatea kontzeptu erabilgarri bat. Horrek ez du esan nahi, noski, kontzeptu “erraz” bat denik, era argian mugatu daitekeen fenomeno bat deskribatzen duenik; gizakioi berezko zaigun aniztasun hori egin daitekeen edozein taldekatzeren baitan ere badago eta.

Christiane Stallaert antropologoak etnogenesi kontzeptua proposatzen du, etnien formazio eta transformazio periodo ezberdinak identifikatzeko eta etnizitatearen izaera desegonkorra seinatzeko balio duena. Euskal Herrian lau etnogenesi identifikatu ditzakegu: Lehena, erromatarrekin euskaldunak historian sartzearen eta Erdi Aroaren arteko tartean ematen da; bigarrena, XVI. mendetik aurrerakoa, kaperatasun unibertsaldun *bizkaitarrari* dagokiona; hirugarrena, nazionalismo modernoaren sorrera eta garapena barnebiltzen dituena; eta laugarrena, 60. hamarkadatik aurrerako aldaketan ondorio dena.

Lehen etnogenesisia besteak baino ezezagunagoa da, ez baitakigu euskadunak halakotzat zuten haien burua ala etnizitatea kanpotik identifikatu zen. Erromanizazioak eragin sakona izan zuten Euskal Herrian, eta ez erlijio kristaua ekarri zuelako bakarrik. Besteak beste, erromatarrek Euskal Herri menditsuaren (*saltus*) eta zerealen kultiborako askoz egokiagoa zen *agerraren* arteko bereizketa egin zuten. *Ager* delakoan, Araba eta Nafarroa hegoaldeko lurretan, euskeraren atzerakada *saltusean* baino askoz lehenago hasi zen, euskera latinaren aurrean posizioak galtzen joan ahala¹. Esan beharra dago, ordea, erromatarren bereizketa hau gero askotariko interpretazioak egiteko baliatu dela, saltuseko basatien (hitzak berak dioen bezala, basokoen) balizko aislazioarekin lotuak, besteak beste. Interpretazioak, ohikoa den

¹ Praktiketara Fermin Leizaolaren bilduma etnografikoa katalogatu behar izan nuen eta oso interesgarria izan zen Euskal Herriko kultura materialaren aniztasuna: Laia mota ezberdinak lurraren arabera, lakariak zereala nagusi zen eremuetan etab.

bezala, helburu politiko ezberdinak elikatu dituzte.

Erromatarrek aldaketa sakonak eragin bazituzten Euskal Herrian (Europa osoan), beste horrenbeste esan daiteke Amerikaren kolonizazioaz. XV. mendeak euskal etniaren beste genesi bat zekarren. Euskaldunak bete betean parte hartu zuten kolonizazioan, eta Colonen itsasontzian zihoazen euskaldunak ehunka urtez luzatuko zen emigrazioa inauguratu besterik etzuten egin. Kolonizazioak ez zuen kolonizatutako lurralde eta jendea bakarrik aldatu: Euskal Herria zeharo aldatu zen munduaren zabaltze honekin. Adibidez, handik ekarritako artoak baserrien egitura bera aldatu zuen, uzta lehertzeko espazioak behar ziren eta, irina egiteko baliagarria zen eta *saltuseko* klima hezerako garia baino egokiagoa zen zereal beri honentzako. XV. mendetik aurrera, kaperatasun unibertsalak, ekoizpen ia autarkiko batek, katolizismoak, emigrazioak eta maiorazgoak ezaugarritzen dute euskal gizartea.

Laister, ordea, Sabino Aranaren nazionalismorako, hirugarren etnogenesirako, baldintza historikoak ezarriko zituzten aldaketak etorri ziren. Frantziako iraultzak liberalismoa zabaltzen du Europan zehar, eta klase sozial berriak sortzen dira. Azkenean, Caracasko Gipuzkoar Compañia bezalako burgesek artoari esker taloak jaten zituzten baserriarren bizimoduarekin amaituko zuten. Kapitalismoak eta harekian batera garatzen ari zen estatu-nazio modernoak euskal etniaren bizimodu tradizionalarekin² bukatu zuten, aldi berean euskal nazionalismoa sortzeko aukera sortuz. Ehunka urtez espainiar katoliko zintzoenak izandako euskaldunak liberalismo zentralistaren aurka altxa ziren gerra karlistetan. Baziren, ordea, foruen aldeko liberalak, haiek emandako abantailak mantendu nahi zituztenak. Testuinguru horretatik sortu zen euskal nazionalismoa.

Nazionalismoak etnia baten bizimodu eta kulturaren eta sortzen ari ziren estatu modernoaren arteko amildegia salbatu nahi du, talde etniko horren elementu batzuk estatuaren kultura ofizialen inkorporatuz. Baina ametsa baino ez da talde etnikoaren kultura tradizionalaren biziraupena estatu nazioaren kulturaren, baita estatuko kultura hori definituko duten talde etnikoen kulturaren kasuan ere (Gaztelaren adibidea datorkit burura). Are okerragoa izan da,

² Eztabaida handia dago tradizio hitzaren inguruan. Testu honetan nik tradizionala den hori iragan prekapitalistarekin lotzen dut, prekapitalismo delako hori ia gizadiaren historia bezain luzea bada ere. Gaur egun eragina duen “tradizioa” iragan prekapitalista berantiarra dela esango nuke nik, hots, aro Modernoko Euskal Herri nekazari eta arrantzaria.

dakigun bezala, estaturik gabeko talde etnikoen kultura tradizionalaren patua. Hor dago Torrealdairen *Libro Negro del Euskera* inork zalantzarik izango balu.

Nazionalismoa etnian oinarritzen bada ere, lotura hau ez da beti berdin aitortzen. Horra hor nazionalismo zibil eta etnikoen arteko ezberdinketa. Frantzia jarri ohi izateak balizko nazionalismo “ez-etniko” horren adibide gisa, bereizketa hau erabat zuzena ez dela salatzen du. Euskaldunak ongi baldin badakigu frantziar nazionalismoak zer jarrera duen hizkuntz aniztasunarekiko³ ez dut imaginatu nahi zer dakiten Pariseko *banlieuean* bizi diren argeliar etorkinen seme alabek.

Nazionalismo guztiak, orokorrean, oso lotura estua edukitzen dute hizkuntza batekin, hizkuntza bakarra hautatzen baita nazioaren komunitate imaginatuarentzako. Hori horrela, etnia ezberdinek oso nazionalismo ezberdinak garatu dituzte (besteak beste, estatu-dun eta estatu gabekoak), eta etniaren hizkuntza (nagusiaren) bilakaera eta estandarizazioa ere oso ezberdinak izan dira.

Euskerarena, adibidez, urte luzeko borrokaren ondoriozko estandarizazio bat izan zen, industrializazioak eta urte luzetako errepresio linguistikoak sortutako egoerari buelta emateko erabaki baten emaitza. Larramendik ezinezkoa egin eta 239 urtera berriro egin zen ezinezkoa, eta euskara batuaren sorrerak euskera lehendabiziko aldiz estatuaren bidez hedatzea ahalbidetu zuen.

Nazionalismoa, ordea, ez zen izan Euskal Herrian loratu zen ideologia politiko bakarra. Baserritar izandakoak larre berdeak hiriko bizitzarekin trukatu ahala estatu guztitik etorritako langile etorkinek industriak behar zuen lan indar eskaria asetzen zuten. Bizi eta lan baldintza deitoragarriek sozialismoaren txinparta piztu eta ugaltu zuten. Korrante sozialista ezberdinen eta nazionalismoaren frakzio ezberdinen arteko harremana gorabeheratsua eta aldakorra izan bazen ere, langile mugimenduak Euskal Herrian eragin sakona izan zuela esan dezakegu. 1937an fusilatua izan zen Estepan Urkiaga Basarazek, Lauaxetak, hitz ederrekin deskribatu zuen langileen bizimodu gogorra: *Ene Bizkai'ko miatze gorri, zauri zarae mendi ezian!*

³ 1794an Grégoire eta Barèrek Frantziako agintariei euskera fanatismoaren hizkuntza zela zioen gutun bat idatzi eta 227 urte beranduago, badirudi egongo dela aukera frantziako eskola publikoetan haur eta gazteek euskeraz ikasteko.

Komeni da gogoraraztea inmigrazioak ez zituela Lauaxetaren hitz ederrak bezalakoak bakarrik inspiratu; denak ez zirela, Aresti bezala, *gizonaren alde paratu*; erreakzio xenofobiko esanguratsu bat ere egon zen. Zailtasunak zailtasun, euskal nazionalismoak bere hasierako base sozial estutik beste sektore sozialetara zabaltzen jakin zuen. Gaur egun, iragan honen berritze batean, euskal nazionalismoak erronka berri bat du, estatuz kanpoko inmigrazioaren hazkunde handia dela eta.

Bukatzeko, Stallaertengana jo nahiko nuke berriro. Berak seinalatzen duen bezala, etnia gauza zeharo historikoa da, eta Euskal Herriaren kasua ez da salbuespen. Gauzak asko aldatu dira Lauaxetak *Langille eraildu bati* olerkia idatzi zionetik. Diktadura ezarri zen, eta gero amaitu; egoera ekonomikoa okertu zen, hobetu eta gero berriz ere okertzeko; ETA sortu zen, bere jardun armatua intentsifikatu zuen, eta gero utzi; euskera hizkuntza ofizial bilakatu zen, eta euskalgintza militantea eszenatokitik desagertu zen. Agian, gaur egun, euskalduntasuna inoiz baino gauza konplexuagoa da, edo agian ez; gauza bat da behintzat ziurra: XV. mendeko euskaldun kristau zintzo batek ez liokela sekula bere buruari galdera hori egingo.